

KANALAK

Lehenik, **ISLADA laguntza enpresa aktiboaren** proiektua Lea Artibaiko Amankomunazgoan aurkeztuko dugu. Beraz, bezeroekiko (udaletxea) kanala zuzenekoa izan da. Baina aholkularitzaren onuradunak herritarrak izango dira; horregatik, beraiekiko kanalak zeintzuk izango diren azalduko dugu ondoren:

- **Telefonoz** deitu ahal izango lukete onuradunek.
- **APP** bidez ere lortuko lukete informazioa, baita kezka argitu ere.
- **Alokatuko genukeen lokala** onuradunentzako zuzeneko kanala izango litzateke, bertara hurbilduko liratekeelako herritarrak bai informazioa jasotzera zein aholkularitza edo kezka argitzeko. Alokairu hau udaletxeak erraztuko liguke zerbitzua herri mailan eskaini ahal izateko. Gainera, ez genuke bitartekorik izango, Islada eta onuradunen artean harreman zuzena egongo litzateke. Beraz, informazio banatzaile lana ere guk burutuko genuke.



Zeharkako beste kanal batzuei dagokionez, gure onuradunei gure zerbitzuaren berri emateko, kanal ezberdin batzuk erabiliko ditugu:

Zerbitzua onuradunei ezagutarazteko **triptikoak**, gastuak gutxitzeko asmoarekin, geuk egindakoak eta banatutakoak izango liratekeela. Zerbitzuaren gaineko informazio guztia izango lukete eta inguruko etxe guztietako gutunontzietan utziko genituzke.

Ondarroako “Hitza” aldizkarian zerbitzuaren berri izateko idatzi bat egingo genuke astero. Herriko kaleetan zehar eta hurbileko herrietako **kaleetan kartel handiak** itsatsiko genituzke, hauek ere geuk egindakoak izango lirakekeelarik.

Azkenik eguneratutako **sare sozial edo APP- bidezko** informazioa jasoko lukete gure onuradunek.

Eskainiko genukeen publizitateak oso mezu argiak izango lituzke bezeroa erakartzeko; hala nola, “Ez egon zain, iritsi gara zuei laguntzeko”.

Kartela: Kaleetan jartzeko

Propaganda: Postontzietara botatzeko



LAGUNTZA BEHAR DUTEN FAMILIENTZAKO ZERBITZUA

Familian sortu daitezkeen arazo eta zalantza anitzei irtenbidea ematen saiatuko gara:

- Aholkularitza
- Zalantzak argitu
- Irtenbideak aurkitu
- Txarлак, elkarriketak, topaketak, formakuntzak, ekintzak...



<p>Kale Handi 20 - 48700 ONDARROA (Bizkaia) Tlf: 946013785 isladazerbitzua@gmail.com APP: Islada</p>	<p>ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera Goizez 09:00-14:00 Arratsaldez 15:00-20:00</p>
---	--



LAGUNTZA BEHAR DUTEN FAMILIENTZAKO ZERBITZUA

Familian sortu daitezkeen arazo eta zalantza anitzei irtenbidea ematen saiatuko gara:

- Aholkularitza
- Zalantzak argitu
- Irtenbideak aurkitu
- Txarлак, elkarriketak, topaketak, formakuntzak, ekintzak...



<p>Kale Handi 20 - 48700 ONDARROA (Bizkaia) Tlf: 946013785 isladazerbitzua@gmail.com APP: Islada</p>	<p>ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera Goizez 09:00-14:00 Arratsaldez 15:00-20:00</p>
---	--